EPALLA
28
Larunbata
Bilbao, 1936

Euzkadi

AŔPIDE-SANEURIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 ifko. iru ilez
Bilbao'atazkua ... 11,25 " "
Idazki-itunmena ... 62,00 " urtez
Atzefijetakuak ... 112,50 " "

Beldayen itunduba

XXIV urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.° | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 7.257 zenbakija

Gayak

"BIZKAITAŔA"

Guaŕ, irakuŕle, aspalditxuban mutututa egon ixan dan "Bizkataŕa" deritxon asteroko abeŕtzaliaren oyua entzungo dozu.

Asteroko onen oyua, Abeŕi - oyua dozu.

Abeŕi-oyu oni yaokan eran erantzun biaŕ dautsazu. Aŕetaz eskuba luzatu, ta etxeko anayarik kutunena bai-litzan, maipuruban jaŕiazo ta jaten emon.

"Bizkataŕa" zeure etxera eruana etxatxu damutuko. "Bizkataŕa" etxekua dogu, ezagun-ezaguna, gure Abeŕija'ren edestija iñok baño obeto dakijana.

Izlari leuna da, edeslari trebia.

Bere eten bako itz-jarijuak gelduta jaŕiko gauz; edestuko dauskuzan edestijakaz, aŕituta.

Euzkadi euzkotaŕon abeŕija dala esango dausku. Euzkotaŕ oron izkuntzea, euzkerea dala.

Laburdi, Zuberoa ta Benabaŕa, Araba, Gipuzkoa, Nabaŕa ta Bizkaya'ren anayak dirala.

Araba, Gipuzkoa, Nabaŕa ta Bizkaya España'ren eŕkijak, eta Lapurdi Zuberoa ta Benabaŕa, France'renak dirala esatia, Hitler Nabaŕiz'ko semia dala esatia lez dala, esango dausku; Mussolini, ostera, Aŕieta'ko bizkaŕian jayo ta azija dala, bayeztoko ba'litz lez ixango litzakela.

"Bizkataŕa" gauŕ txaideratuko da. Bilbao'ko txadiak lenengotik azkeneraño arakatuko dauz. Oyu indaŕtsubak ortzeratuko dauz, axiaren eguetan jaŕita Euzkadi gustira edatuteko.

Eta Bilbao'ko txaidietatik ortze oztiñerantz jaurtiko dauzan oyuen anotsa, Euzkadi'ren azkenengo bazteraño elduko da. Bizkai gustija igaroko dau, Araba, Gipuzkoa ta Nabaŕa eŕtz batetik bestera arakatubaz Añumendi-ziaŕ egaiz, Laburdi. Zuberoa ta Benabaŕa'raño elduteko.

"Bizkataŕa", irakuŕle, Abeŕi-oyua da, Euzkadi'ren geznarija.

Eta geznari au, gauŕ egingo dautsazuben aŕera-bidez, astero zeuben etxietan ixango dozube. Itz-jarijo elduko yatzube, edestijak-edesti edestuko dautzubez.

Aŕera ona egijozube, ba. Besuak zabaldu-egijozubez, mataĸiro besaŕkatu, ta etxeko maipuruko aulkirik gurena eskiñi.

AUTESKUNDIAK

Epaia azkenengo egunetan dakusgu, beste urteraŕte aguŕ egiteko pardeltxuba gertetan.

Joŕaia, ostera, baratzetako lora zuri-goŕi-orizkaz apainduta gure aŕtera etoŕteko udabaŕikotuten...

Kukua'ren oyu bakana aldian dabela yatoŕku, ta uri-auteskundien agirija bizkaŕetik bera dindilizka dabela oroi erakusten.

Joŕaia'ren bizkaŕian jaŕi daben agiri oŕeri begiratu dautsagu, ta len aŕatu doguzan uri-auteskundiak ila oŕen 12'gaŕenian ixango dirala esan dausku

Beraz, irakuŕle, uri - auteskundiak etxeko atietaraño ija elduban dakusguz. Uri-auteskundiak, batzuk uste daben baño gaŕantzi aundijagokuak dira-ta, yaoken gaŕantziz aŕtuteko gerteu biaŕ gintzakez.

Gauzak astiz eta aŕetaz begirautenten dakijanak, ondo ta zuzen adiralduko dauz, eta okeŕak zuzenduteko bidian jaŕi.

Auteskundian egiten dana, auxe da: eŕijak zaindu ta jauŕtuko dauzan eŕi -jauŕliak autetsi.

Jauŕle onak, zuzendari zintzuak autesten ba-doguz, eŕijak banakari zinduak ixango dauz.

Baña, ordez, gaiztuak, ardurabakuak, eŕi-kaltegaŕijak autesten ba-dira, eŕijak jauŕle txaŕak ixango dauz.

Eta eŕija geu gara: Bilbao, Gernika, Morga edo beste edozein eŕitako

Beraz, ain eŕiko endoria deungia dala; beste aretako ziñegotzijak 'apuŕ batzuk dirala ta abaŕ esaten dauskubenian, endore ta ziñegotzijei barik, areik eutetsi ebezan autesliei ezaŕi biaŕ yake negaŕ-zijo gusti oŕein eŕuba.

Autaŕkijak geuriak dira, ba. Autaŕkijakaz bakotxak agintzen dau. Autaŕkijak eŕija dira. ¿Nori emon biaŕ yakoz....? Eŕija onduen zaindu ta jauŕiko dabenari. Uri-auteskundiak ganian doguz irakuŕle. ¡Geŕteu gadixan, gerteu...!

ZUŔUMUŔUBAK

Datoŕen jaŕaian ixango doguzan uri -auteskundiak bide dirala, zuŕumuŕu aundijak edatu dira.

Zuŕumuŕu batzuk diñuenez, bakaldaŕak-eta... auteskunde-buŕukara eldu barik geratuko ei-dira.

Bakaldaŕok eta onein adizkidiak buŕuka-nastera eldu barik geratzeko erabagija aŕtzen dabenian, garaitza -guenera elduteko susmo onik eztabe aurki. "La Gaceta del Norte" ixen aundijaz ezagutzen dan Enao txaideko andera aundikijaren abotsak beñepein, azkenengo aldun-auteskundietan ataraten eban beste zarata eztau ataraten. ¿Zer jazoten yakala, baña? ¿Gexo ete da? ¿Ala min-eŕpiña ebagi dautsoe? Baŕitsu-baŕitsuba zana, ixilik dago beñepein. Zarata-zaratatsuba zana, bare-bare, otzan-otzan, gaimel-ganera jausita eguak gaimeletan bustita iñorako be eztala aurkitzen dan euli beratubaren antzian makalduta. ¡Gaxua...!

✦ ✦ ✦

Auteskunde - auziko zuŕumuŕubok, era askotako zuŕumuŕubak dira.

Eŕi batzubetako bakaldaŕak eta onein eresijan dantzan dagijenetarikuak buŕuka-landaratu barik geratzekotan ba-dabiltz be, beste batzubetakuak beste ames batzuk ei-darabilez: eskeŕtaŕakin batuko ei-dira, ta gustijen indaŕez Jel apuŕtu biaŕ ei-dabe. Jel ei-da euren areyua. Jel apuŕtu -ezkero, Euzkadi gustija boltxebikiz beteta be, emen, gure uri ta basurijetan, Eŕusi'n baño obeto jan, obeto jantzi ta obeto jolastu ta lo egiten daben eskeŕ-eskuma nasteko oŕei, ez ei-dautse ardura, ba. Jel-ikuŕiñaren gurutza bijak deuseztu-ezkero, elexak eŕe ta gixabidia basatituta be, "katoliku"-eredu lez agertuten yakuzan eskumatzako oŕei, bape ez ei-dautse ardura. Euzko-Alderdi Jeltzalia betiko ondatutia loŕtu-ezkero, euren gurariŕik aundijena loŕtuta ei-legoke.

Eta euren bijoz-gurariŕik aundijena loŕtuteko, eskeŕakin batuko ei-dira, edonorekin buztaŕtuko ei-dira, txeŕenakin be bai uŕian.

Zuŕumuŕu bakan au, ¿egija ete...?

¿EUZKO-IKUŔIN BAŔIJA?

Gipuzkoa eŕki-aldundiko kestoriak amesetan-edo asi dira, euzko-ikuŕin baŕija asmau eziñik euren kestore-burubak apuŕtu biaŕian ei-dabiltz-eta.

¿Euzko-eŕijak iguin be iguin dauzan kestoriak euzko-ikuŕin baŕija asmetan? ¡Ondiño geyago be entzungo dogu!

¡Len eginda daguan ikuŕiña; ondo baño obeto eginda daguana; Sabin'ak, Euzkadi'k bere ikuŕintzat asmau ebana baño obarik beste iñok asmau ezin leiken euzko-ikuŕin baŕija asmau biaŕ dabela...! Zoruak eurak be olango amesik eztabe egiten. Eta asmauko ba 'lebe be; asmau ta aldun-txeiguan jaŕiko ba'lebe be, ¿zenbat egunian iraungo ete-leuke? Benetako eŕki-aldundija; eŕijak autaŕki-bidez autetsitako aldunak aldundiratu, ta eŕijak gura eztabezala bertaratuta aurkitzen diran aldun ixunak, kestore ezeskaŕijak bein be eldu biaŕ ezeben leku aretatik giñaŕoska jauŕti aŕtian.

Kestoriakandik jayoten dana, kestoriakin batera ilten da. Bilbao'ko Udal -kestoriak asmau ta euren erabagi -bidez egin ziran txaidien ixen-aldatziak-eta be, kestoriakin batera deuseztu ziran; Kale-Ituŕino ta lagunen kestore - abotsak mututu ziranian, abots gaŕatz arein anotsa lekaruan galdu zanian...

¡Bijaŕ edo etzi, eiza-txakuŕen auŕetik iges-igeska urten biaŕa dauken kestoriak yaukezak amesak...!

Uribitaŕte'taŕ Ibon.

Gora buru "antzokija"

Lekeito

ANTZEZ-JAYA

Igandian, martijaren 29'gn. gabeko zortzi ta erdijetan
izango da, geure abeŕkide Urzelai'taŕ Eŕapel zanaren etxekuen alde, bertoko Euzko-Batzokija'k eralduta.

EGITARAUA:

I. Gizonezko abestaldiak.
"Aguŕ, jaunak".—Olaizola'rena
"Nere etxea".—Beobide anayena. Iru abotsetara.
II. "Ituŕian", Amonaŕiz'taŕ Ander 'ek idatziriko antzekija, ekitaldi bitan. Lenengo ekitaldija.
III. Abestaldiak.
"Gona goŕia", — E. Mokoroa.
"Txiribogin-andrea", A. Santiago'rena. Iru abotsetara.
IV. "Ituŕian", 2'gn. ekitaldija.
V "Gai dagonaren indaŕa", Baŕiola 'ren antzeŕkija; ekitaldi bakaŕean.
VI. "Euzko-Abendearen Ereserkija".

ANTZEZNOTIÑAK

"ITUŔIAN"

"Gumertsinde andrea", Eguŕola'taŕ Elixanete.
"Pantxikiñaxi", Txopitea'taŕ Kaulde.
"Katalin", Ortiz'taŕ Jone.
"Joxepa", Onaindia'taŕ Jone.
"Eusebetxo", Odiaga'taŕ Josune.
"Pelipatxo", Solano'taŕ Begoñe.
"Andra zaŕ bat", Anakabe'taŕ Josune.
"Benite", Urkidi'taŕ Aguŕtzane.
"Terese", Erkiaga'taŕ M. Terese.
"Kalare", Ordorika'taŕ Arantza.
"Mamerte andrea", Elordi'taŕ Nekane.
"Serape andereño", Solano M. Guruzne.
"Pepi", Erkiaga'taŕ Eduŕne.
"Andra zaŕ bat", Garabila'taŕ Pantzeske.

"GAI DAGONAREN INDAŔA"

"Kelda", Goikoetxea'taŕ Estepan.
"Serapi", Ordorika'taŕ Ander.
"Patxi", Saŕia'taŕ Kepa.
"Eulale Andrea", Ziaŕeta'taŕ Miren.
"Karmeletxu", Badiola'taŕ Gotzone.
"Otseñak", Mendia'taŕ Belen.
"Otseñak", Abaroa'taŕ Miren.

Saneuŕijak

Besaulkijak, 2,00 lauŕleko.
Aulkijak, 1,50.
Zizeluak, 1,00.
Orokaŕa, 0,50.

Ikastola arazoak eta sendiaren eskubideak

Aldi onetako agintariak eztabe bayetsi gura izan sendien eskubidea ikastola arazoetan. España-lateŕiko araudiak be, 48'gaŕen atalean, eztauz aintzakotzat artu gurasoen eskubide oneik: "El servicio de la cultura es atribución esencial del Estado... La enseñanza primaria será gratuita y obligatoria... La enseñanza será laica".

Oraintsu, baŕiz, egun oneitan, agindu baŕi bat emon dau Marcelino Domingo'k. Lateŕi ikastoletatik at ikasi daben ume guztiak, egin dabezan ikaskizunen agiria bear izango ei dabe bigaŕen malako ikastetxetara sartu al izan daitezan.

Agindu oŕeik danak guraso-eskubidien aurka dagoz. Ikusi daigun, beraz, zelangoak diran gurasoen eskubideak lateŕiari buruz.

Auŕekoan ikusi dogunez izaditik yatorko sendiari ikastola arazoetarako eskubidea Eleizearen menpeko uzkurtz gayetan eta ekandu arazoetan. Eleiraz, euren eskubidea zuzenerako bakaŕik izango dabe. Oŕegatik da gurasoen eskubidea Eleizeraen menpeko uzkurtz gayetan eta ekandu arazoetan. Eleizeari emon dautsalako Yaungoikoak uzkurtz gayetan eskubide guztia.

Lateŕiari buruz, baña, gurasoen eskubideak eztau menpetasunik. Irakastea ezta agintarien eginkizuna, yakitunena baño. Lateŕiari, baña, agintaritzea yagoko ez iñola ere yakintza be ra. Eztau, beraz, lateŕiak iraĸasteko es kubiderik, ezta berak gura dabena ikasi arazoteko almenik be.

Azkarate'k berak iñuanez, irakastea ezta lateŕiaren egin beaŕa. Abeŕien batean gurasoak eurak ikaskuntza arazoetan beaŕeko danak egingo ba-leukiez, eleuke lateŕiak zertan sarturik izango.

Alan da be, baña, eztautsagu ukatu gura lateŕiari irakastolak eraikiteko eskubiderik. Eraiki dagikez ikastolak, zenbat eta geyago oba, eta sendiai esñeki, batez be, eurenez ikastolarik ordaindu ezin daben sendiai.

Onako au bakar-bakaŕik esan gura dogu: Lateŕiak, berak eraiki dauzan ikastoletan be, Eleizearen eta gurasoen aurkako eskubiderik eztauala. Onen zioa bat-bakaŕa da: gaztiak azi ta ezitzea eztala agintarien arazoa. Lateŕiaren eskubidea ikastola arazoetan, Eleizearen eta gurasoen eskubide-azpitik dago ez gañetik. Zergatik?

Ona men: Ikastolak gizartearen onerako dira. Eztago ukatu beaŕik. Gizartearen onerako dan guztia Lateŕiaren menpean dago, baña? Ezta iñola be. Legeko amar aginduak, Eleizearen aginduak, Eleizearen ikasbideak, Eleizeak egiten dauan guztia be gizartearen onerako da. Gizartearen luŕeko zoriona ezta Eleizearen azken elburua; betiko zoriona, bai. Eleizeak, baña, betiko zorionaren bila dabilanean, Yaungoikoarenak baitira elburu biak, emen beko zoriona be lortu egiten dau. Beste aldetik: sendiaren ona be gizartearen onerako izaten da. Sendiak ondo dagiana, gizartearen zorionerako izan oi da beti. Nok esango dau, alan da be, Eleizea ta gurasoak lateŕiaren menkepo dirala? Gizartearen onerako dan guztia ezta, beraz, lateŕiaren menpeko. Ezin geinke kistaŕok oŕelakorik bayetsi.

Ba'dakigu nundik sortu dan eritzi ori. Sozialistak eta matxinada-zaleak zabaldu eben beñola gizartearen eskubide guztiak lateŕiagandik yayo ziralakoa .Doipuruak, baña, eta ez batek bakaŕik, saŕi itz egin dabe eritzi oŕen aurka. Izan be, gizonak eta sendiak gauza baterako bakaŕik sartzen dira lateŕian: bakoitzak bere aldetik lortu ezin dauzan elburuak, guztiok bat eginda eŕazago lortu dagiezan.

Onetan dago, beraz, lateŕiaren zeregiña: gizona; lagundu, bidea erakutsi, gizonen urduritasunari mugak yaŕtean. Ezta, baña, lateŕiaren elburua gizonen eskubideak ezereztutzea, izadiak eskatuten dauana aintzakotzat ez artutea. Eta izadiak diñoana aintzat artu gura ba-dau lateŕiak, argi-argi ikusiko dau noraňokoak diran gurasoen eta lateŕiaren eskubideak ikastola arazoetan eta bestelako arazo askoetan be.

Urte oneitako oker-yakitun askoren amesa sendia ezereztuten izan da. Ba'dakie oŕelako oker-yakitunak, sendia ezereztu ezkero, euren ikasbide zantaŕak berealaxe zabaldu ta edatuko dirala ludi guztian. Ba'dakie, batez be, umeak okeŕera eŕaz-eŕaz obenduko dirala. Eta oŕen bila dabiz aspaldion. Bein umeak eurekanatu ezkero eurena da ludia.

Eta gurari oŕeik lortuteko, ikastolea baizen bide eder eta egokirik eztabe idoro. Eleizeari ta gurasoai euren eskubideak kendu, ukatu. Edonon eskubidea lateŕiagandik sortu dalakoa edatu. Eta, yakiña Eleizeak eskubiderik ezpadau, gurasoak euskubiderik ezpadabe, eskubide guztiak lateŕiarenak dira. Lateŕia danon gañetik, lateŕiaren menpeko danok.

Uŕengoan ikusiko doguz lateŕiaren eskubideak ikastola arazoai buruz.

MIKELATS.

Errijetatik

ABADIANO

BATZAŔA.— Gauŕ goxeko bederatziretan (1) egingo da Uri-Buru onetako alderdikide gustijentzako batzaŕa. Etoŕi danok, batzaŕ onek gaŕantzi aundija dauko-ta. Ziñegotzi-gayak autesteko ixango da, ba, batzaŕ au.

IGANDIAN ITZALDIJA.—Igazi dan igandian gastetxuben itzaldija egin zan. Izlarijak, Eloŕio'ko gastetxubak ixan ziran: Kortazaŕ'taŕ Andoni eta Adan'daŕ Alesander. Astigaŕaga'taŕ Begoñe'k aurkeztu ebazan, eta ederto egin be. Gastetxubok itzaldi edeŕak oguzi ebezan. Txalotubak ixan ziran.

ZOZKETA.—Erloju baten zozketea egin zan. Eta zozketa aretako zenbakija, auxe ixan zan: 1259.

ASTE DEUNA.—Aste Deuna uŕeratubaz yatoŕku. Ori dala-ta gure abeslarijak egunoro diñardube Aste Deuneko abestijak ikasten.

AUTESKUNDIAK. — Auteskundiak be atietan doguz. Auteskunde onetan eztoguz autu biaŕ liberal ez "independienterik", abeŕtzale zintzuak baño. Oraňaŕtien batak eta bestiak gure aldez egin ixan dabezen baŕi ondo dakixube, ba.

Guk eztogu biaŕ nasterik. Sagaŕ zinduaren onduan iminten dan ustelak, zindua be usteldu egin oi-dau, ba. Arazo au, baña, Uri-Buru-Batzaŕa'ren eskuban dago, ta berak jakingo dau zer egin.

ZORITXAŔA.—Igazi dan igandian, Agiŕebeitia'taŕ Agapiña, txiŕingutsetik jausi-egin zan, eta min aŕtu. Ainbat 'asteŕen osatutia opa dautsagu.

Kukuzaŕ.

(1) ¿Zein egunetako bederatziretan? Idazki au atzo eldu yakun, ba.

MUXIKA

BAŔIJEN-BAŔI.— Lengo auteskundiak amaŧu ta beriala baŕijen-baŕi, Udal-auteskunde lanetan asi ziran Jel -aurkaŕijak, eta geuk be lanari oratu biaŕa dogu; landu ta gijauten eztan soluak... uzta on gitxi emon darua. Au goguan dogularik lanari gogoz oratzeko gertakixunak egin biaŕ dirala -ta gure U. B. B.'aren aginduz ila onen 29'an aŕatsaldeko 4'etan, Batzokijan, muxikaŕ abeŕtzalion Batzaŕa ixango da; eta bertan aŕtuko diran erabagi zuzenak lan-gaitzat doguzalarik.... azkengo gurendeari beste garaitza bat getuteko uste oso-osoz, bakoitza beren zeregiñetan igituko gara.. Eta Aŕospide'taŕ Jon, gure maxu... aguŕgaŕijaren Jel-gudarostia, zentzun onez, euzko-erara jokaturik gurenda Elbururatuko dala uste dogu.

¡Igandian ba, danok Batzokira! eta gero... zaŕ ta gaste, danok lanera. Iñorentzako be goŕoto barik, beti Jaun Goikua eta Lagi-Zaŕa'ren aldez, geure eskubide zuzenen aldez.

KUKUA AGERTU DA

Epalak ogetazei...
kukuak ku-ku...
Zugaztijan goxetik
Abestu dauzku.

Soso-birigaŕuak...
Txiruliruli
Udabaŕija dala,
Gauŕ esan legi.

UDABAŔIJA

Zugatzak jantzi dabe
Zoñeko... baŕija,
Txori alayak autu...
Nun egin abija,
Lore bikain politez
Apaindu zelaya
Zelaira loren bila...
Dua gastedija.
¡Gaste maŧe Jel-lorei....
Esaŕi begija...!

E.'taŕ K.

ISASONDO

OŔI-BELTZA. — Usterik gutxiena genduen garayan, eldu da gugana Sarasola eta Martinez-Lasa'taŕ Gurutz il beŕia G. B.) bere gogoa.

Uri ontako seme bezela Euzko-Batzokija'ko bazkidea zan, abeŕtzale sutsua eta luistaŕ zindoak atsekabe aundia eman digu, ludi-au betirako utzi eta goruntz ega eginduela jakitian.

Agur egin diyo betirako ludi oni, eriotz zoŕotzak ebaki diyo ludi ontako bizia, beti iraunderako atsegiñezko biziera beŕiari asera emateko. Guk -ere, aguŕ daiyogun biziera beŕi ortan beŕiz besarkatu-arte! Agur Gurutz! Agur, Donokian ikusi-aŕte!

Bere guraso atsekabetuak, Sarasola

Euzkotar Umientzat

Arritokieta

ARIN, ASKAŔ ETA ZOLI

Arin, Askaŕ eta Zoli ¡ru katukumetxo zuri politak ziran, euren ama andre Xapi'k ondotxo aziak.

Ondo azteak esan nai du naikoa igortzi ta laztan artzen zituztela ondo portatzen ziranean, baña merezi zutenean baita atze aldean zaplada edeŕak ere.

Euren urte-betea beaŕ zan bezela ospatzeko, irurai bezuz edo eŕegalo berdiña egin zioten amak; eŕegalo au izan zan, atzeko ankatxoetan janzteko oñetako pare bana, eta eguardirako bazkari edeŕa atonduko zuala agindu zioen: saguakaz eta patxizaŕakaz (1) egindako opil gozoa.

Arin, Askaŕ eta Zoli'k pozez lertzeko zorian jantzi zituzten euren atzeko ankatxoetan amak ekaŕitako oñetako politak, eta amak bazkaria prestatu bitartean, baratzara jolasean egitera juatea pentzatu zuten.

Sukaldeko atien auŕetik igaro ziranean, aitu zuten patxizaŕ eŕien eta sagu egosien usaj gozoa eta, uŕutira ez alde egitea erabagi zuten, ama deadarka ibili ez zedin maya ipiñitakoan.

Ai ura baratz edeŕa andre Xapi'ren baratza! Ango loreak! Ango zugatzak! Eta ura eŕekatxo polita baratzatik zeaŕ zijuan eŕekatxo ura!

Iru katu-kumetxoak, lenengotik

"Kia, kia mendijan,
Oluak beren tokijan."

jolasean eskutatu eta alkaŕ bilatzen ibili ziran.

Gero alkaŕi eskuak emanda zugatz baten biran:

"Ala kinkiŕiñera,
Ala zangurunera,
Arintxo Plazabeŕiko,
Jirari beste aldera."

jolasean, eta naikoa nekatu ziranean, luze-luze euren buruak belaŕ gañean etzanda atzedentzen egon ziran. Arnas estua juan zitzayotenean, ama deadarka asi baño len etxeratzea erabaki zuten.

Baña sukaldeko ateraño eldu zirenean, ¡oŕa ezbeaŕa! irurak oñetako gabe zeuden. Jolasean zebiltzala galdu zituzten nonbait.

Au egitekoa! Zer esango digu amak? Arin, Askaŕ eta Zoli'k ekin zioten zapatatxo bila baña iñondik iñora ez zan zapatatxoen beŕirik. Ibili - ibili eginda etsizutenean, amarengana zuzendu ziran negaŕez, eta dana esan zioten.

—"Aitaren eta Semearen..." asi zan ama zearo aŕeŕatuta, —ume txaŕok alakuok, ez dezute nik egindako opilik proatuko, baldin bakoitzak bere oñetakoak bilatzen ez ba'dituzute. Ez gero neregana uŕeratu oñutzik."

Erten zuten irurak atzera baratzara, eta Arin'ek bere zorionez, pasiara zijuan antzaŕ bat bilatu zuan. Bilduŕ aundia ematen zion antzaŕak, baña poliki-poliki uŕeratuaz, bigun - bigun galdetu zion:

—Miau! Andre antzaŕa, ikusi al dituzu emen inguruan guk galdutako oñetakotxoak?

—Koa, koak, ene umetxoak—erantzun zion antzaŕak, uste diat miru marilapuŕ batek eraman dituala mokotik txintxilika.

Au entzutean Askaŕ'ek jaso zuan gorantz bere muturtxoa, eta sagaŕaren abaŕik goyenean ixekita ikusi zituan iru zapata pariak.

Sagaŕean gora aitaren egin orduko igo, Arin eta Zoli'rj deitu eta iru zapata pariak goitik bera bota zituan.

Onetara, andre Xapi'k ebaki zuan patxizaŕakaz eta saguakaz egindako opil edeŕ gurija lau pusketan eta laurak jan zuten auŕeko ankatxoak saŕitan txupatuaz.

Jacques Freneuse.
(Minet, Minon, Minouche.)

(1) Nere eŕian patxizaŕa kurloyari esaten diote.

'taŕ Imanol eta Martinez-Lasa'taŕ Paul'ek, negar egiten dute, beren 20 urteko semeak, alde egin dielako, ezda aŕitzekoa negar egitea! Bañan poztu zaitezte, Donokitik lagunduko dizuteta! Ludi ontarako ilda, bañan besterako berpixtu da! Poztu bada gurasoak!

Irakuŕle otoitxobat bere alde, eta gauŕ (1) larunbatean ilan 29'n goizeko 10'n uri ontako Eliz nagusian bere aldez egingo diraden elizkizunetara etoŕj aldezuten guztiok.

Murumendi.

(1) "Gauŕ" imiñi dogun lekuban, "datoŕen" zuk idatzi zendun, zuzen idatzi be, barikuban argitalduko yatzula uste sendubalako. Baña ezin argitaldu, zure idazki au eguben gabian "Euzkel-Atala" amaŧuta gero eldu yakun-eta. Azketsi, ba.

ELOŔIO

ANTZERKI-JAYA.—Igaro dan igandian, Oñati'ko antzeslari edeŕak etoŕi ziran eŕi onetara. Aspaldi itxaroten genduzan antzeslarijak, "Lagunik lagunena", Ugarte'taŕ Biŧoren'ak apaindutako antzerki edeŕa, gure begijen auŕian jaŕi eben. Antzerkile laukija osorotzen ebenak onexek ixan ziran:

Ugarte'taŕ Kepa, Ortiz Zarate'taŕ Jon, Madinazkoitia'taŕ Joseba Mirena, Aspiazu'taŕ Joseba, Izaga'taŕ Andoni, Burnaritza jo ebana Galartza'taŕ Eduŕne ixan zan.

Zorijonak damotsedaz euren zeregiña ondo be ondo bete ebelako.

JAYOTZA.—Ama N.'ren Deikunde egunian, ugutzau eben Balenziaga'taŕ Imanol eta Arando'taŕ Bibiana'ren alabatxu bat. M. Merzedes (1) ixena jaŕi eutsen.

Zorijonak, adur-oneko gurasuai.

ERIJOTZA.—II-onen 26'gn. iłobiratu eben Alkorta'taŕ Silbere (G. B.), Bere sendikueri euren galtze atsekabetsuban laguntzen dautset.

ASTERKETAK.—Datoŕen larunbatian asterketak ixango dira Euzko -Ikastolan. Juan gura dabenak eztauko ba atia jotia baño.

Kordaŕa.

(1) Miren Eskarne ezaŕi ixan ba 'leutse, zorijongaŕijago ixango yakun.

MENDARO

JOSEBA DEUNAREN EGUNA.—Aundikiro ospatu genun Joseba Deunaren eguna. Goizeko saspiretako jaupan askok paskuakua egin zun. Amaŕetan meza nagusi edeŕa esan gendun eta aŕatsaldian oztetza aundiakin emon zitzaion bukaera Joseba deunaren bederatziuŕenari. Kintin jaunak itzaldia egin zigun.

JAYOTZA.—Beitxi-basetxian semetxo bat izan dute. Zorionak.

EZKON-DEYETAN.—Igandian irakuŕi ziran geure txadonan lendabiziko ezkon-deyak gure lagun diran Aŕiola'taŕ Jokin eta Eguren'daŕ Eupeme 'renak. Zorionak.

"LAUAXETA,,'RI.—Kaxo Lauaxeta! Beraz aspaldian ixilik egon naizela e? Uzte det umore oneko zaudela. Izpaŕak egon ezkero ta zortzitik zortzira idazten det da ala ere aspaldiari ixilik nagola jakiña, ba nere idazkiak bialduta zandik zortzira argiratzen ba -dituzte. Bien bitartian ixilik egon biaŕ. Uŕengo auteskundietan ere jo ta ke egin biaŕean gera. Uŕen-aŕte.

Kaiku.

ALBIZ-MENDATA

JOSEBA DEUNA.—Egun pozkaŕija benetan Albiz'ko Euzko-abeŕtzale mutilentzat. Auteskundietako gurenda edo triunpua, be, egin geban orduban. Benetan pozkaŕi dogu ainbeste autarki edo boto eukitiaz.

AU ONA DA.—Albiz-uŕutxun ardangelea zabaldu eban 22'gaŕenian Badiola'taŕ Polentzi gastiak. Abeŕtzaliak juan biaŕ -gara bertara.

GARIZUMA. — Igande gustijetan egiten doguz Gurutze-Bidiak, Josu'ren auŕian. Aste onetan mixijolarija be emen dogu. Igandian, ila onen 29'gaŕenian jaunaŕtzia ixango da. Besperan jaŕiko dira jauparijak euren autorkutxetan.

Oiz-baŕen.

DURANGO

EUZKO-NEKAZARI . BAZKUNAK. Ospe andiko jayak ixan ziran igandian. Goxian Tabira'ko elexan jauna, ainbat notiñekin. Ondoren Astarloa -Etxia'ko antzokijan batzaŕa. Gaŕantzi andiko erabagijak aŕtu ebezan. Ordu bijetan itzaldijak.

Geŕikabeitia'taŕ Toma, Goŕoño'taŕ Argintxona'taŕ Lin eta Robles-Arangiz'taŕ Imanol jaunak itz-egin eben. Gauza edeŕak esan euskubezan eta poz-pozik entzun geuntsezan. Lauretan antzerki-jai begi-begikua. "Txomin -aŕayo" eta "Iziaŕtxo" euzkeraz. Gustijak oso txalotubak ixan ziran. ¡Auŕera Euzko-nekazarijak!

Uri onetako karlo - monarkikuak, batzaŕak adirazoten dabenez. Ginebra'n egiten diran batzaŕak legetxe, udal -ziñegotzi baŕijak ixentauteko estu -samaŕ dabiltz, nor ipiñi be eztakijejela-ta. Gixon serijorik ez ei-dauke. Azkenez euren aŕtian eztagolako lapiko-giñai agindu dautsez bustiñezko gixon baŕijak egiteko.

Komiziño au emon dautse Adolpo'k Boldro eta Santxez'i. Guk abeŕtzaliok aŕokeri gitxi ta lan onurakoŕa. Batz gadixan batzokijan gabero emakume ta gixonak, iñor etxian gelditu-barik gero!

ERIJOTZA.—Urkidi eta Gandia'taŕ Ander, bere 63'gaŕen urtian Goikua'k bereganatu dau. Sendikuai lagun gayakez atsekabian.

GOGO-IÑARKUNAK.—Igandian asikera emon yaken saspiretan Endeitza Abak geure izkuntzan emoten dauz. Talde edeŕa batzen gara, baña biaŕ dan beste ez. Uri onetan geure izkuntzaganako oztasun andija dagola ezin ukatu. Bijaŕ goxeko saspiretan jaunartzia ixango dogu. Doipurubaren onespenaz amaŧuko dira gogo-iñarkunok.

Sarkunde.